Ander Deuna Enparantza, 5
www.sukarrieta.eus
48395 Sukarrieta (Bizkaia)
IFK/CIF: P-4808900-G

SUKARRIETAKO UDALA

udala.sukarrieta@bizkaia.org
Tfnoa: 946 870 715

SUKARRIETAKO UDALAREN AMARRALEKU PUNTUAK ANTOLATZEKO PLAN BEREZIA IZAPIDETZEKO IDAZKETA- ETA AHOLKULARITZA-ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA. **Kontratu mota: Zerbitzuak** **Jardunbidea: Irekia** **Izapidea: Arrunta** **CPV kodea: 71400000-2**	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE REDACCIÓN Y ASESORAMIENTO EN LA TRAMITACIÓN DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN DE LOS PUNTOS DE AMARRE EN SUKARRIETA.** **Tipo de Contrato: Servicios** **Procedimiento: Abierto** **Tamitación: Ordinaria** **Código CPV: 71400000-2**
I.- SARRERA Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana –aurrerantzean, EKZP– onartzen duen irailaren 27ko 139/2016 Dekretuaren 4.4.4.28 artikuluak ontziak atrakatzeko eta amarratzeko azpiegiturak arautzen ditu. Ontziak atrakatzeko eta amarratzeko instalazio iraunkorrak eta horiekin lotutako zerbitzuak. D.8. Honela: "1.- Ontziak amarratzeko eta atrakatzeko instalazio iraunkorrak eta horiekin lotutako zerbitzuak dira. 2. – Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babesteari eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legea indarrean sartu zenean dagoeneko bertan zeuden amarratze-lekuak eta ontziralekuak mantentzea eta konpontzea baimentzen da. 3.– 5/1989 Legea indarrean sartu zenerako harri-hazta bidezko amarratze-lekuak bazirenez, eta horiek antolatu eta ingurumenean eta paisaian duten eragina murriztearren, Arketa eta Portuondo inguruetan, instalazioak mantentzeko eta konpontzeko ekintzen barnean jasoko dira ontziak lerroan, modu antolatuan eta jarraituan jartzea ahalbidetzen duten harri-hazta bidezko amarratze-	**I.- INTRODUCCIÓN** El Artículo 4.4.4.28 del Decreto 139/2016, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai – en lo sucesivo el PRUG-, regula las infraestructuras de atraque y amarre de embarcaciones. Instalaciones permanentes destinadas al amarre y atraque de embarcaciones y sus servicios asociados D.8., del siguiente modo: "1.– Se trata de las instalaciones permanentes destinadas al amarre y atraque de embarcaciones, así como sus servicios asociados. 2.– Se permite el mantenimiento y reparación de puntos de amarre y embarcaderos existentes a la entrada en vigor de la Ley 5/1989, de 6 de julio, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. 3.– Atendiendo a la existencia de puntos de amarre a muertos a la entrada en vigor de la Ley 5/1989, y con el objeto de ordenar los mismos y minimizar su impacto ambiental y paisajístico, en las zonas de Arketa y Portuondo, quedarán comprendidas dentro de los actos de mantenimiento y reparación de las instalaciones, las actuaciones necesarias para disponer puntos de amarre a muerto que permitan la colocación de las embarcaciones en

lekuak prestatzeko jarduerak; horrela, murriztu egingo da eragindako ur-laminaren azalera. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako ingurumen arloko Sail eskudunak Plan Berezi bat onartuko du, Plan honetako V. tituluan ezarritakoarekin bat etorriz, bi zona horiek mugatu eta arautzeko eta baimendutako gehieneko ontzi kopurua finkatzeko, betiere, horretarako 5/1989 Legea indarrean sartu zen unean itsasadarrean harri-hazta bidez finkatutako kopurua eta, betiere, inguru horrek duen harrera-ahalmena kontuan hartuta."	línea, de forma ordenada y continua, reduciendo de esta manera la superficie de lámina de agua afectada. A tal efecto, el Departamento competente en materia de medio ambiente del Gobierno Vasco aprobará un Plan Especial de acuerdo con lo establecido en el Título V del presente Plan, que delimite y regule estas dos zonas y establezca el número de embarcaciones máximo permitidas, atendiendo al número de ellas aseguradas a muertos en la Ría a la entrada en vigor de la Ley 5/1989, y en todo caso, a la capacidad de acogida del medio."
Kontratuaren xedea da aipatutako artikuluan aipatzen den plana idaztea eta behin betiko onarpena lortu arte plana izapidetzeko aholkularitza ematea. Horretarako, zuzenketak, argibideak eta txostenak egin beharko dira, eta, oro har, Udalari lagundu eta aholkuak eman beharko zaizkio beharrezkoak izan daitezkeen izapideetan, sustatzaile gisa soilik jardungo baitu, Eusko Jaurlaritzari baitagokio arlo horretako lurralde-antolamenduaren eskumena. Plegu honetan eta AKPPn xedatutakoaren artean kontraesanik badago, azken horretan xedatutakoa gailenduko da (AKPP).	El objeto del contrato es la redacción del plan a que se alude en el artículo citado, y el asesoramiento en su tramitación hasta lograr su aprobación definitiva, debiendo llevar a cabo las correcciones, las aclaraciones, los informes y, en general, ayudar y asesorar al Ayuntamiento en los trámites que puedan ser necesarios en la medida en que este actuará únicamente como promotor, al corresponder la competencia de ordenación territorial en esta materia a Gobierno Vasco. En caso de contradicción entre lo dispuesto en el presente Pliego y en el PCAP, prevalecerá lo dispuesto en este último (PCAP).
II. PLAN BEREZIAREN EDUKIA, KONTRATAZIOAREN XEDE DEN ZERBITZUAREN FUNTSEZKO ZATI GISA. EKZPren 5.2.3 artikuluak plan bereziak arautzen ditu, horiek gauzatzeko aurreikusitako zehaztapenak garatzen dituen hirigintza- eta ingurumen-araudi xehatuaren bidez; izan ere, EKZPren helburuak lortzeko tresnak dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean antolamendu xehatuko tresna horietarako	**II.- CONTENIDO DEL PLAN ESPECIAL, COMO PARTE ESENCIAL DEL SERVICIO OBJETO DE CONTRATACIÓN.** El Artículo 5.2.3 del PRUG regula los Planes Especiales, como instrumento para la consecución de los objetivos del PRUG, a través de la regulación urbanística y medioambiental pormenorizada que desarrolle las determinaciones previstas para su ejecución. Estos Planes Especiales se ajustarán a lo previsto para estos instrumentos de ordenación pormenorizada en la Ley 2/2006, de 30 de junio,

aurreikusitakora egokituko dira plan berezi horiek, eta legea betetzeko behar den dokumentazioa jaso beharko dute; zehazki, hirigintza- eta ingurumen-legerian berariaz jasotakoa bildu beharko dute. Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluak plan berezien esparrua eta edukia definitzen ditu, eta adierazten du plan bereziaren zehaztapenak plan partzialerako aurreikusitakoen antzeko dokumentuetan formalizatuko direla, nahiz eta edukia beren helburuaren arabera doitu beharko den; horrekin batera, ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko araudiak eskatutako dokumentazioa ere bilduko dute, plan horiek osorik edo zati batean lurzoru urbanizaezinari eragiten diotenean. 68. artikuluak plan partzialen dokumentazioa zehazten du, eta plan bereziek ere jaso beharko dute dokumentazio hori: "a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentarauzko antolamenduari egokitzea. b) Informazio-planoak. c) Antolamendu xehatuaren planoak. d) Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa. e) Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak. f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa." Horren ondorioz, pertsona edo erakunde esleipendunak idatzi beharreko dokumentuak aipatutako sei atalak jaso beharko ditu, gutxienez.	de suelo y urbanismo del País vasco, y deben contener la documentación precisa para su cumplimiento, y, en concreto deberán contener lo recogido expresamente por la legislación urbanística y medioambiental. Por su parte, el artículo 69 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del suelo y urbanismo define el ámbito y contenido de los planes especiales, y afirma que las determinaciones del plan especial se formalizarán en documentos similares que los previstos para el plan parcial, si bien ajustando su contenido a su propio objeto, junto con la documentación exigida por la normativa de evaluación de impacto ambiental cuando dichos planes afecten en todo o en parte al suelo clasificado como no urbanizable. El artículo 68 detalla la documentación de los planes parciales, que también deberán contener los planes especiales: "a) Memoria informativa y justificativa, que deberá recoger toda la información que contenga los elementos de juicio para el ejercicio de potestad de planeamiento, y describir el proceso de formulación y selección de alternativas para la adopción de decisiones, incluyendo el análisis de las alegaciones, sugerencias y reclamaciones formuladas a título de participación ciudadana, y la justificación de la adecuación a la ordenación tanto estructural como directiva establecida por el plan general. b) Planos de información. c) Planos de ordenación pormenorizada. d) Estudio de las directrices de organización y gestión de la ejecución. e) Normas urbanísticas de desarrollo del plan general. f) Estudio de viabilidad económico-financiera." En consecuencia, el documento a redactar por la persona o entidad adjudicataria deberá contener, al menos, los seis apartados citados.

Ander Deuna Enparantza, 5
www.sukarrieta.eus
48395 Sukarrieta (Bizkaia)
IFK/CIF: P-4808900-G

udala.sukarrieta@bizkaia.org
Tfnoa: 946 870 715

SUKARRIETAKO UDALA

Sukarrietan, 2022ko azaroaren 28an	Sukarrieta, 28 de noviembre de 2022

SUKARRIETAKO UDALA
BIZKAIA